

DIRU-ITURRIAK

Diru-sarrerak Bilboko udalak eta beste erakunde publikoek esleituko dizkigute, izan ere, erakunde hauek urtero gizartearen ongizatea hobetzeko zenbateko bat bideratu behar dute. Horrenbestez, irabazi asmorik gabeko enpresa honen moduko entitateek proiektuak aurkezten dizkiete erakundeei, hauek diru-laguntzak inbertitzeko.



Era berean, enpresa pribatuek ere dohaintzak egiteko aukera izango dute. Gizartearen ongizatea sustatzen duten proiektuetan parte hartzea enpresa horientzako aukera bikaina da, izan ere, horrela ez ezik, gizarte erantzukizunari buruzko beren irudia indartzen laguntzen du. Enpresa pribatuentzako helburua ez da soilik gizarteari laguntzea, baizik eta beren balioak eta helburuak erakustea, hau da, etorkizuneko bezero eta inbertitzaileak erakartzea.

Publizitate estrategia ugari ere erabiliko ditugu enpresaren ikusgarritasuna handitzeko. Adibidez, galak, ekitaldi benefikoak, publizitate-hesiak eta bestelako ekintzak erabiliko ditugu, enpresaren jardueren bultzada emateko.

Estatuak diru-sarrerak esleituko dizkigunez, erakunde publikoek beraiek egingo dituzte publizitate-jarduera gehienak. Publizitate-hesiak eta iragarkiak leku estrategikoetan jarritz, enpresaren ekintzak ikusgarri egingo dituzte. Horren bidez, gizarteak eta potentzialen inbertitzaileek gure enpresaren eginkizuna eta proiektuak ezagutuko dituzte.



Gainera, galak eta ekitaldi benefikoen bitartez, enpresaren helburuak eta jarduerak ezagutaraziko dira, eta ekintza horietan parte hartzen dutenak enpresan inbertitzeko aukera izango dute, aldi berean gure proiektuei babesa emanez.